



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko apirilaren 11

58. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabaltzen diena. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean sexu-joerarengatik edo genero-identitate edo -adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (5. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza psikologikoa ezar dezan oinarritzko osasun laguntzan. Osasun Batzordeak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da nahasmendu mental larriari dagokionez Osasun Planean jasotakoa gara dezan. Osasun Batzordeak onetsia (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu San Petersburgoko metroan iragan apirilaren 3an izandako atentatua eta Siriako Jan Seijun-eko herrian apirilaren 4an arma kimikoekin egindako eraso. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabaltzen diena.**

*LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak honako foru lege proposamen honi buruz onetsitako irizpena: "Foru Lege proposamena, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabaltzen diena". Proposamen hori 2017ko urtarrilaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**IRIZPENA**

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak 2017ko apirilaren 4an eta 6an egindako bileran onetsia.

**Foru Lege proposamena, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langile batzuentzat zabaltzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legearen bidez, Nafarroako Foru Komunitatean lanbide karreraren sistema ezarri zen Osasun Departamentuaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko osasun arloko langile fakultatiboentzat. Lanbide karreraren

sistema hori abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuaren bidez garatu zen.

Etengabeak izan dira apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legearen aplikazio-eremutik kanpo utzi ziren Foru Komunitatearen Administrazioako eta hari atxikitako erakunde autonomoetako osasun langile fakultatibo finkoen eskakizunak.

Hori dela eta, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei gehitutako zenbait zuzenketaren bitartez, partida batzuk handitu egin ziren eta beste batzuk sortu ziren, Osasun Departamentukoak edo haren erakunde autonomoetakoak ez diren osasun arloko langile fakultatiboek lanbide karrera ordaintzeko.

Hori dela-eta, honako foru lege hau proposatzen dugu, lanbide karreraren aplikazioa Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuei eta haien erakunde autonomoei atxikitako langileentzat hedatzeko xedez.

**1. artikulua. Xedea.**

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legeak eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legeak ezarritako lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua zabalduko zaie Nafarroako Gobernuaren departamentu guztietako eta haren erakunde autonomoetako osasun langile fakultatibo guztiei, baldin eta lanpostua jabetzan badute eta haien sarbide eta izendapenerako nahitaezkoa bada edo izan bada lanpostua urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean aurreikusitako "Fakultatibo espezialistak" edo "Bertze osasun fakultatiboak" izeneko estamentuetan sailkatzea ahalbidetzen duten titulazioetako edozein edukitzea.

**2. artikulua.** Araubide juridikoa.

Foru lege honetan aurreikusi ez den guztirako, aplikatuko da honako hauetan xedatutakoa: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboan lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/999 Foru Legean, Lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen dien azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legean, eta 11/1999 Foru Legea garatzeko arauak ezartzen dituen abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuan.

**3. artikulua.** Ondorio ekonomikoak.

Hasierako koadramendua ezarritako araei eta prozedurei jarraikiz egin ostean, kasuan kasuko zenbatekoak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera ordainduko dira.

**4. artikulua.** Ebaluazio batzordea.

Lanbide karreraren sistemaren aplikazioa hedatzen zaien profesionalen ebaluazioa Osasun Publiko, Administrazio eta Osasun Kudeaketako Ebaluazio Batzordearen eskumena izanen da.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Egoera bereziak.

1. Foru lege honetan araututako lanbide karreraren sistema bere aplikazio-eremuan sartzen diren langileei izanen zaie aplikatzekoa, noiz eta ere osasun arloko profesional tituludunen lanpostuak atxikitzen zaizkieneko administrazio-unitateetako burutzak betetzen ari baitira, foru lege honen garapenerako erregelamendu-araudian ezarritako araei jarraituz.

2. Foru lege honetan araututako lanbide karreraren sistema bere aplikazio-eremuko langileei aplikatuko zaie noiz eta ere langileen ordezkaritza organoetako kide baitira, legez ezarritako ordurkredituaz lanaldi osoan baliatu ahal direnak. Kasu horretan, mailaz igotzeko, iraunaldiak betetzeaz gain, prestakuntzako, ikerketako eta garapen teknikoko jardueri buruzko baremoaren ataleko betebeharrak besterik ez zaie eskatu eta ebaluatuko, foru lege honen garapenerako erregelamendu-araudian ezarritako araei jarraituz.

**Xedapen gehigarri berria.** Aldi baterako emandako zerbitzuak.

1. Osasun Departamentuak eta haren erakunde autonomoek aintzat hartuko dituzte foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera eta bere aplikazio-eremuan osasun arloko langile fakultatiboek aldi baterako kontratu baten bitartez emandako zerbitzuak, osasun arloko fakultatiboa eremu horretan sartu bada eta zerbitzu horiek foru lege

honen garapenerako erregelamendu-araudian finkatutako arauen arabera ebaluatu badira.

2. Halaber, aintzat hartuko dira foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera aldi baterako kontratu baten bidez emandako zerbitzuak, 11/1999 eta 31/2002 foru legeen aplikazio-esparruan.

**Xedapen gehigarri berria.** Toki-erakundeen menpeko osasun arloko langileak.

Toki entitateetako osasun arloko langile fakultatiboak foru lege honetan arautzen den lanbide karreraren sisteman sartu ahalko dira, baldin eta zerbitzuak ematen dituzten udaleko udalbatzak hala erabakitzen badu, horretarako berariaz hartutako erabakiaren bitartez.

**Xedapen gehigarri berria.** Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun arloko langile fakultatiboek aplikatzea.

Foru lege honek indarra hartzen duen unetik, Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan lanpostu bat jabetzan izan eta borondatezko mugikortasuneko prozeduren bitartez foru lege honen aplikazio-esparruko osasun arloko kasuko titulazioa exigitzen zaien lanpostu batera sartzen diren osasun-langile fakultatiboek, Osasun Departamentuan finkatuta zuten lanbide-karrerako maila aitortuko zaie.

**Xedapen gehigarri berria.** Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan aplikatzea.

Osasun Departamentuak eta haren erakunde autonomoek aitortu egingen diete, foru lege honen aplikazio-eremuan sartuta dauden osasun arloko langile fakultatiboek, lanbide karreraren finkatuta daukaten maila, fakultatiboa eremu horretara aldatzen den kasuetan. Hori horrela, lanbide karrerako araubide aplikagarria izanen da apirilaren 6ko 11/1999 eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legeek eta abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuak ezarritakoa.

**Xedapen gehigarri berria.** Lanbide karreraren mailari eustea.

Baldin eta osasun arloko langile fakultatibo finkoak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko beste departamentu baten edo haren erakunde autonomoen menpe egotera pasatzen badira, jatorrizko departamentu edo erakunde autonomoan lanbide karrerari zegokionez aitortuta zeukaten mailari eutsiko zaio.

**Xedapen gehigarri berria.** Lanbide karrerako osagarriaren zenbatekoak.

1. Foru lege honen aplikazio-eremuko osasun-langile fakultatiboan lanbide karrerako osagarriak zenbateko hauek izanen ditu urtean:

- I. maila:
- II. maila: 2.917,88 euro.
- III. maila: 5.835,90 euro.
- IV. maila: 8.753,78 euro.
- V. maila: 11.671,80 euro.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako zenbatekoak urtero eguneratuko dira, Nafarroako aurrekontu orokorreko buruzko foru legeetan Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarierako ezartzen den igoera-portzentajearen oinarrituta.

**Xedapen iragankor berria.** Osasun arloko langile fakultatiboak kasuko lanbide karrerako mailan sailkatzea hasiera batez.

1. Foru lege honen aplikazio-eremuko osasun langile fakultatibo finkoen hasierako sailkapena egingen da kasuko lanbide karreraren maila esleituz Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan osasun arloko fakultatibo gisa, jabetzako lanpostu batean, emandako zerbitzu-urteen arabera; halaber, kontatu egingen dira Europar Batasuneko kide diren estatuetako osasun sistema publikoetan osasun fakultatiboaren baliokidea den izendapen batekin emandako zerbitzu-urteak, honako eskala honen arabera:

- 5 urte baino gutxiago, I. maila.
- 5 urtetik gora, II. maila.
- 14 urtetik gora, III. maila.
- 22 urtetik gora, IV. maila.
- 29 urtetik gora, V. maila.

2. Zerbitzuan emandako urteak behar direnak baino gehiago izanez gero, soberakin direnak kontuan hartuko dira etorkizunean mailaz igotzeko. Mailaz igotze hori egingen da foru lege honetan eta bere garapenerako erregelamenduzko araudian ezarritako prozedurari jarraituz.

**Xedapen iragankor berria.** Mailaz igotzea.

Langileak aurreko xedapenean ezarritakoaren arabera hasieran eman zaien mailatik gora igotzeko, laguntza-jardueren eta lanbide-hobekuntzako eta -eguneraketako jardueren balorazio gisa exigitutako puntuazioa proportzionalki egokituko da, foru lege honek indarra hartzen duen egunetik mailaz igotzeko exigitzen den iraupen-aldia betetzen den datara arte iragandako denbora-eparearen arabera.

**Xedapen iragankor berria.** Ezohiko prozedura, Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun langile fakultatibo finkoek foru lege honen aplikazio-eremuan eta foru lege honek indarra hartu aurretik emandako zerbitzuak aitortzekoa.

Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun langile fakultatibo finkoek, baldin eta lanbide karreraren sistema ezarrita ez zegoen Foru Komunitatearen Administrazioako lanpostuetan osasun arloko langile fakultatibo finko gisa zerbitzua eman badute, zerbitzu hori aitortzeko eskatu ahalko dute.

**Azken xedapenetan lehena.** Foru lege hau garatu eta betetzeko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau bete eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean sexu-joerarengatik edo genero-identitate edo -adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Foru Lege proposamen honi zuzenketak aurkezteko epea **2017ko apirilaren 27ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea: “Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean

sexu-joerarengatik edo genero-identitate edo -adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa”. Aipatu foru lege proposamena 2016ko irailaren 9ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza psikologikoa ezar dezan oinarrizko osasun laguntzan.**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2017ko apirilaren 5ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza psikologikoa ezar dezan oinarrizko osasun laguntzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Oinarrizko osasun laguntzako medikuei sarbidea ematea Osasun Mentaleko Zentroetako psikologo klinikoen agendara, gaixoei ahalbidetzeko profesional horiekin hitzordua edukitzea.

2. Oinarrizko laguntzan esku-hartze psikologikoa pixkanaka ezartzea, zerbitzua emateko behar diren baliabideak jarriz, arreta integral eta zerbitzuetan integratu baten eredu batean".

Iruñean, 2017ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da nahasmendu mental larriari dagokionez Osasun Planean jasotakoa gara dezan.**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2017ko apirilaren 5ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da nahasmendu mental larriari dagokionez Osasun Planean jasotakoa gara dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du benetan gara dezan Osasun Planean nahasmendu mental larriari dagokionez biltzen dena; bereziki, nahasmendu mental larria duten gaixoen autozainketa-programa eta nahasmendu mental larrirako arreta integratuaren programa.

2. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du, eta zehazki Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza, antolamenduneurri bereziak presta ditzan gaixotasun mental larria duten pertsonen osasun fisikoa hobetze aldera, helburua izanik detekzio goiztiarra hobetzea eta arrisku faktoreak murriztea, kontuan hartuz Osasun Mentalaren Foroak emandako gomendioak.

3. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du, eta bereziki Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza, behar diren neurriak eta protokoloak sar ditzan Oinarrizko Laguntzako Zerbitzuen Zorroan, gaixotasun mental larria duten pertsonen osasun fisikoa hobetzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gaixotasun mental larriak dituzten pertsonen osasun fisikoaren gaineko ikerketa lagundu eta susta dezan, helburua izanik pertsona horien heriotza-tasa eta gaixotze-tasa murriztea eta bizi-kalitatea eta osasuna hobetzea. Azken finean, osasun arloko desberdintasunei aurre egitea.”

Iruñean, 2017ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu San Petersburgoko metroan iragan apirilaren 3an izandako atentatua eta Siriako Jan Seijun-eko herrian apirilaren 4an arma kimikoekin egindako eraso.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko apirilaren 6an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Errusiako San Petersburgoko hiriko metroan iragan apirilaren 3an izandako atentatua, 14 hildako eta dozenaka zauritu eragin zituenena. Halaber, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Jan Seijun-eko herrian (Siria) apirilaren 4an arma kimikoekin egindako eraso, 72 hildako eta ehunka biktime eragin zituenena.

2. Nafarroako Parlamentuak bere doluminak eta elkartasuna helarazi nahi dizkie zuzenean nahiz zeharka kaltetutako pertsona guztiei.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko herritar guztiak premiatzen ditu adierazpen honekin bat egin dezaten eta indarkeria terrorista arbuiatzeko eta biktimei elkartasuna adierazteko egiten diren ekitaldi guztietan parte har dezaten.”

Iruñean, 2017ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

